

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

119. zenbakia**Data 2011-06-23****61 orria**

7 Udal Administrazioa**ALBIZTURKO UDALA****Hileta zibilen ordenantza. Akats zuzenketa**

ALBIZTURKO UDALA

Akats zuzenketa

Ikusirik 2011ko ekainaren 8an Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zela **Albizturko** Udalean Gune Publikoan Hileta Zibilen Ospakizun eta Baimenak arautzen dituen Ordenantza argitaratu zela, eta bertan zenbait akatsa aurkitu direla, berriro ere bere osotasunean argitaratzen da zuzenduta.

Albiztur, 2011ko ekainaren 10ean.—Alkatea.

(108) (7266)

Gune Publikoan Hileta Zibilen Ospakizun eta Baimenak Arautzen dituen Ordenantza.

ATARIKOA

I KAPITULUA

XEDEA

1. artikulua. Xedea.

Testu honen helburua da **Albizturko** udalerrian hileta ospakizunak egiteko baldintzak arautzea, edozein dela pentsaera, sinismen edo ideologia.

Araudi honek arautzen ditu, batetik, halakoak egiteko arrasatearrei eskaini dakizkiekeen lekuen erabilera eta, bestetik, horiei buruzko baimenak.

II. KAPITULUA

ANTOLAKETA

2. artikulua. Lekuak.

Orokortasunez eta **Albizturko** udalerrian leku honetan egingo dituzte ospakizunak:

Herriko Plazan.

3. artikulua. Egunak eta orduak.

Hileta zerbitzuak egunero egin daitezke, igandetan eta jaiegunetan izan ezik.

Hiletak egiteko ordutegia: 18:00 - 20:00.

4. artikulua. Kostua.

Albiztur Udalak ez du kosturik eskatuko ospakizun hauengatik.

III. KAPITULUA

BAIMENA

5. artikulua. Baimena.

Udalak eskaintzen duen zerbitzu hau erabiltzeko, Udalak hartarako duen eskabide eredua sinatu behar dute eta Udaleko bulego orokorretan aurkeztuz, ospakizuna egin nahi duten egunean goizeko 11:00ak baino lehen.

Edozein arrazoiengatik Udalak irizten badu ez dagoela erabiltzerik hileta ospakizuna egiteko leku bat, Udala harremanetan jarriko da eskaera egin duenarekin, egoeraren berri emateko eta beste irtenbide bat adosteko.

IV KAPITULUA

ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

6. artikulua. Eskubideak eta betebeharrak.

Hildakoei dagokienez, indarrean dagoen araudi sanitarioa aplikatuko da.

Familiakoek edo lagunek era berezian apaindu edo egokitu gura dutenean lekua, euren kontura joango da guztia, bai muntatzea eta desmuntatzea eta geroago ingurua garbitzea, eta lekua utziko dute erabili aurretik zegoen moduan.

Araudi honetan jasota ez datorren guztian, udal arduradunen jarraibideak jarraituko dituzte.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Baimena ematen dio **Albizturko** Udalak alkateari, behar diren jardunak aurrera eramateko, araudi hau behar bezala bete dadin.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza edo araudi hau indarrean sartuko da behin betiko testua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean, eta indarrean jarraituko du Udalaren udalbatzarrak aldatu edo derogatzea erabaki arte.